

GERTAERA HISTORIKOAK KONTATZEN



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. maila

Nerea Badiola

GERTAERA HISTORIKOAK KONTATZEN

Sekuentzia didaktikoak barnean hartzen dituen jakintzagaiak: Hizkuntzak, ICTak eta Gizarte zientziak.

Gaia: Gertaera historiko batean oinarritutako istorio digitala.

Maila: 2. DBH

Saio kopurua: 6 saio

Proposamenaren testuingurua:

Proposamen honetan, hizkuntzari loturiko bai ahozko bai idatzizko trebeziak lantzeko asmoz, ikasleek gertaera historiko batean oinarritutako narrazio bat asmatuko dute, narrazio digital bat hain zuzen ere; hau da, ikasleek teknologia berrien laguntzarekin irudiz, testuz eta soinu egindako narrazio bat sortuko dute.

Narrazioen hartzaileak ikastetxe bereko 1. DBHko ikasleak izango dira; horrela, ekoizpenaren funtzionaltasuna bermatuko da eta narrazioa ekoizterakoan ikasleek hartzaile erreal eta hurbila izango dute erreferentziatzat. Narrazioa gertaera historiko batean oinarrituko denez, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeaz aparte, ikasleek gertaera historiko bat ondo ezagutu eta ulertu beharko dute.

Landuko diren oinarritzko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (guztietan)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (2., 5., 6. eta 8. jardueran)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (2., 5., 6. eta 8. jardueran)
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (1., 3. eta 6. jardueran)
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (1., 5., 7. eta 8. jardueran)
- ✓ Giza eta arte-kulturarako gaitasuna (1., 7. eta 8. jardueran)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Narrazioen egitura eta ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ Istorio digital bat sortzeko ICTak erabiltzen jakitea.
- ✓ Ahozko hizkuntzaren berezitasunez ohartzea.
- ✓ Irudiz, testuz eta soinu egindako istorioa sortzea.
- ✓ Hainbat gertaera historiko ezagutzea eta aztertzea.
- ✓ Lana planifikatzea eta ondo garatzea.

Edukiak:

- ✓ Narrazioen ezaugarriak eta elementuen azterketa.
- ✓ Ahozko hizkuntzaren ezaugarrien erabilera.
- ✓ Denbora ardatzaren garapena: denbora lokailuak eta antolatzaileak.
- ✓ Gertaera historikoen analisisa.

- ✓ Sarean dauden baliabideen bilaketa eta erabilera.
- ✓ Talde-lanean aritzea.

Jardueren sekuentzia:

- a) Planifikatzea
Hainbat gertaera historiko.
- b) Gauzatzea
Kontaketen ezaugarriak.
Kontaketaren ardatz kronologikoa.
Informazioa bilatzen, aukeratzen eta istorioa idazten.
Istoria errezipitatu.
Istoriako baliabideak bilatzen eta antolatzen.
- c) Erabiltzea
Istoria digitala sortzen.
Gaztetxoei istorioak erakusten.

Ebaluazioa

Adierazleak:

- Ea narrazioen ezaugarriak eta elementuak bereizteko gai den.
- Ea bere ekoizpenerako baliabide digitalak egoki erabiltzeko gai den.
- Ea ahozko hizkuntzaren ezaugarrien garrantziaz ohartzeko gai den.
- Ea narrazio koherente eta kohesionatua ekoizteko gai den.
- Ea gertaera historiko bat egoki ulertzeko eta azaltzeko gai den.
- Ea taldean istorio digital bat ekoizteko gai den

Tresnak:

- ✓ Sekuentzian proposatuko direnak:
Hasierako ebaluazioa: 1. eta 2. jarduerak
Prozesuaren ebaluazioa:
Ebaluatze txantiloia (5. eta 6. jarduerak).
Istoria digitala (auto)ebaluatze txantiloia (8. jarduerak).
Amaierako ebaluazioa: azken ekoizpena
- ✓ Irakasleak erabiliko dituen beste batzuk:
Prozesuaren behaketa eta jardueren berrikusketa.

1. JARDUERA. Hainbat gertaera historiko.

Hona hemen Euskal Herriko historiako zenbait gertaera interesgarri:

Gudarien kapitaina zen Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, 1937ko apirilean, Franco diktadoreari su hori itzuliko ziola hitzeman zuen eta 33 urte geroago lortu zuen bere agintza betetzea. Donostian, Anoeta pilotalekuan, soinean zeraman arropari su eman zion.

A

Dolores Ibarruri izaera gogorreko emakumea izan zen gazte-gaztetatik. Bizkaiko meatzarien baldintza kaskarrak salatzen mabinatu eta mito bilakatu zen.

B

1492an, Errege-erregina Katolikoek juduak kanporatzea erabaki zuten. Antonio Tornay judua zen, baina Gasteizen zegoen medikurik onena ere bazen.

C

Emakumea izan arren, nahiago izan zuen gizon bezala bizi. Moja izatera behartu zuten, baina komentutik ihes egin eta Ameriketara joan zen; han, alferez egin eta gizon moduan bizitzeko ametsa bete zuen.

D

Erregeak uste osoa zuen Lapurdi sorginek inbaditu zutela, eta apaiz bat bidali zuen bertara, sorgin haiei azkena emateko asmoz.

E

Espainiako Gobernuko lehendakaria izan zen Maria Cristina de Habsburgo-Lorenaren erregeordetzan eta italiar anarkista batek hil zuen Arrasaten, Santa Agedako bainuetxean

F

Banaka, irakurri eta aukeratu honako izenburu hauetatik bat gertaera bakoitzarentzat.

Pasionaria

Gernikako Sua

Katalina Erauskoa

Lancre inkisidorea

Canovasen hilketa

Azken judua


Orain, bete honako koadro hau:

GERTAERA HISTORIKOAK	A	B	C	D	E	F
Ezaguna nuen.						
Interesgarria iruditzen zait.						
Informazioa falta zait ulertzeko.						
Gehiago jakin nahi nuke.						
Honetan oinarritutako istoriotxoak idatz daitezke.						


Binaka edo hirunaka arituko zarete lanean. Lehenengo, konparatu orain arte emandako erantzunak. Ondoren, begiratu honako irudi hauek eta aukeratu lehen erabilitako izenburuetatik egokiena irudi bakoitzarentzat.













Amaitzeko, ikusi http://www.hiru.com/eu/historia/bideo_historikoak helbidean dauden honako bideo hauek: *Gernikako sua*; *Pasionaria*; *Azken judua*; *Katalina Erauskoa*, *alferez moja*; *Lancre inkisidorea*; *Canovasen hilketa*...

Ados al zaudete jarraian agertzen diren esaldiekin? Eztabaidatu taldean eta aldeko edo kontrako arrazoiak eman.


IRUDIEK HISTORIOAK KONTATZEN LAGUNTZEN DIGUTE
 AHOTSA EZ DA BEHARREZKOA HISTORIOAK KONTATZEKO
 MUSIKAK ETA SOINUEK HISTORIOAK GIROTZEKO BALIO DUTE

ezinbestekoa denez, zuen ekoizpena
ISTORIO DIGITALA izango da

Zer egin behar dugu istorio digital bat ekoizteko?

Hona hemen istorio digitalen prozesuan hainbat pauso posible. Lehenengo, erabaki beharko duzue zeintzuk emango dituzuen eta zer ordenatan. Gero, pauso gehiago gehitu beharrezkoak direla uste baduzue. Amaitzeko, bateratu zuen erantzunak talde handian eta idatzi arbelean.

Pauso posibleak: *istorioa idatzi, argazkiak eta musika bilatu, istorioa editatu informazioa bilatu eta aukeratu, kontaketen ezaugarriak aztertu, baliabide guztiak antolatu, ahoz gora praktikatu eta ahotsa grabatu, gaia erabaki....*



3. JARDUERA. Kontaketen ezaugarriak.

Ados zaude?

Narrazioa edo istorioa: benetako edo asmatutako gertaera baten edo lotutako gertaera multzo baten kontaketa da.



Gertaera bat kontatzeko informazio nahikoa bildu behar dugu, istorioa osoturik azaldu nahi badugu behintzat. Zein da behar dugun informazioa? Hori jakiteko, honako ariketa hau egingo duzue.

Irakasleak bi azpitaldetan banatuko du talde handia. Erdiak *Gizon baten bizia salbatuta* istorioa irakurriko du, binaka; beste erdiak, berriz, ez du irakurriko. Azken horiek ere binaka arituko dira, eta izenburuaren azpian dagoen istorioa asmatzen ahaleginduko dira. Horretarako, euren irudimena erabilita, koadroan dauden galderak erantzuten ahaleginduko dira. Ondoren, istorioa irakurri duen bikote bat irakurri ez duen beste bikote batekin batuko da eta irakurri ez dutenek koadroko galderak egingo dizkiete irakurri dutenei.

Erantzunak izan ondoren konparatu aurretiaz asmatutako erantzunekin. Antzekoak dira? Ala oso desberdinak?


IZENBURUA

GIZON BATEN BIZIA SALBATUTA

- Nork salbatu du gizona? _____
- Nor zen salbatutako gizona? _____
- Non gertatu da? _____
- Noiz gertatu da? _____
- Zein zen protagonistak zuen arazoa? _____
- Nork kontatzen digu eta zer zenbatgarren pertsonan agertzen dira aditzak jokaturik? _____
- Zer gertatu da? _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- Zer ikasi duzu istorioarekin? _____
- _____

Lortu dituzuen erantzunekin informazio nahikoa duzue istorioa osorik kontatzeko. Istorioa kontatzeko beharrezkoak diren zati horiek kontaketaen **elementuak** dira.

Binaka edo hirunaka, lotu kontaketen elementu bakoitza koadroan dauden galdera bat edo birekin.



1. testua

GIZON BATEN BIZITZA SALBATUTA

Australia, 2008ko urtarrilaren 22a, 12:00am

Mutil bat heroi bilakatu da: aitari ahoz ahokoa egin ostean, suspertu egin du eta gau ilunean barrena oinutsik 3 km egin ditu laguntza bila, euren autoa amildu eta gero. Nahiz eta bera ere zaurituta egon, 11 urteko Lochie Nally-k aitaren bularra ez zela mugitzen ikusi zuen euren autoa irauli ostean atzo, Hego Australiako iparraldean.

Mutil ausartak, zauri arinak zituela, BBB (bihotz-biriketako bizkortzea) egin zion aitari, eta ondoren, oinutsik 3 km egin zituen korrikan Koolunga hotelera heldu arte. Atea kolpeka jo eta ugazaba esnatu zuen, eta horrek anbulantziari deitu zion.

“Tabernara joan nintzen eurak zirelako Koolungan ezagutzen nituen pertsona bakarrak... Oso izututa nengoen eta ilun-ilun zegoen eta ezin nuen ezer ikusi” esan zuen Lochiek atzo.

Graham Goodwin polizia buruak esan zuenez Lochiek egindakoa “inoiz ikusi dudak ekintza heroikoenetakoa da”. “Imajina dezakezunez istripu larria jasan du, beraz berak ere estu egon behar zuen” adierazi zuen. Lochiek erakutsitako adorea saria merezi du.

Mr Nally (36 urte ditu) larri dago Adelaidako ospitale batean. Polizia istripuaren inguruabarrak aztertzen ari da.

news.ninemsn.com.au/article.aspx?id=369464-tik itzulita

4. JARDUERA. Kontaketa ardatz kronologikoa.

Ez ahaztu narrazioa irudiz, testuz eta soinu egindakoa izango dela; beraz, istorioa era koherentean, errazago garatzeko, kontakizuna ordena kronologikoan antolatuko duzue; eta horrela, hartzaileek ez dute haria galduko.

Kontakizunaren ordena kronologikoa adierazteko, komenigarria izaten da denboraren ardatzaren ordenari erreparatzea. Beraz, kontakizuna ondo lotzeko, ondo erabili beharko dituzue denbora-antolatzaileak eta denborazko perpausak.

Binaka edo hirunaka, Elhuyar aldizkaritik ateratako testu labur hau ordenatu. Gero, gertakizunak antolatzeko testuan erabiltzen diren denborazko testu-antolatzaileak eta esamoldeak azpimarratu eta koadroan bildu.

2. testua

ELHUYAR ANAIAK

Gero, Fausto Fermin Alemania eta Hungarian ibilita Mexikora joan zen. Han "Real Seminario de Minas" izeneko erakundea sortu zuen; hango lehen injineru-eskola, alegia. 1821.ean Espainiara itzuli zen eta Madrilén hil zen 1833. urteko urtarrilaren 6an. Joan Jose anaia ere atzerrian ibili zen azken aldian, Kolonbiara joan zen eta hango meatzeak hobetzen saiatu zen. 1796. urteko irailaren 20an hil zen Bogotan.


Hasieran, laborategian aritu ziren bi anaiak lanean, baina handik laster joan ziren Europar barrena (Paris, Strasburg, Mannheim, Freiburg, Leipzig eta abar) metalurgia eta mineralogiko azken berrikuntzak ikastera. 1781.ean Austrian eta Hungarian batera ibili ondoren, Fausto Bergarara itzuli zen eta Joan Josek Suediako Uppsalara joanda wolframita minerala analizatzen ikasi zuen Bermanen eskutik.

Hurrengo urtean, Joan Jose itzuli zen Bergarara eta bi anaiak laborategian wolframioa isolatzen saiatu ziren. Baita munduan lehen aldiz elementu kimiko hau isolatzea lortu ere. Aurkikuntza nagusi haren berri 1783. urtean eman zen Herri Lagunen Gasteizko Batzarre Nagusiari.

Joan Jose eta Fausto Fermin Elhuyar Lubize anaiak, Logroñon hurrenez hurren 1754-VI 15ean eta 1755-X-11n jaio ziren. Joan Elhuyar aita zirujau famatua zen; Hazparnen jaioa eta Donibane-Lohizuneko Ursula Lubizerekin ezkondua. Ursula ama hil zenean, Joan Elhuyar berriz ezkondu zen bere seme-alabak Joan Jose, Fausto eta Maria Lorentza hobeto zaintzearen.

Handik urte batzuetara, 23 urte zituenean, Joan Jose Parisetik Bergarako Erret Mintegira (Xabier Maria Munibe eta Azkoitiko Zalduntxoek sortutakoa) etorri zen lanera eta hurrengo urtean, 1778.ean, anaia Fausto ere bai.

Gazteak zirenean, 1772. urtean, Joan Jose eta Fausto Fermin anaiak Parisera joan ziren "Le Jardin du Roi" ikastetxean ikasketak egitera. Han batez ere kimika eta mineralogia landu zituzten, baina botanika, zoologia eta abar ere bai.



5. JARDUERA. Informazioa bilatzen, aukeratzen eta istorioa idazten.

Dagoeneko erabakita duzue kontaktaren gaia. Orain, jarduera honetan informazioa bilatuko duzue, hiruko taldeetan. Eta ateratako informazioa antolatu eta datu guztiak karpeta batean jasoko dituzue.

INFORMAZIOA BILTZEKO PROZEDURA

- Liburutegiko TESTU-LIBURUEN atala kontsulta dezakezue:
Hautatu gai historikoei loturikoak
- ENTZIKLOPEDIA TEMATIKOAK ere azter ditzakezue.
Hautatu gai historikoei loturikoak
- WEB HELBIDEETARA jo:
Euskal Herriko historia
http://www.hiru.com/es/historia/bideo_historikoak
http://www.euskosare.org/euskal_herria/aurkezpena_eh/historia/historia-eu
<http://kondaira1.wikispaces.com/Gaiak4?f=print>
Munduko historia
<http://www.historiasiglo20.org/GLOS/index.htm>



Zer informazio behar duzu? Begiratu 3. jarduerari, eta aukeratu zuen istorioa idazteko behar duzuen informazioa.

ISTORIA IDAZTEKO INFORMAZIOA

Hauexek ere erabaki: zein aditz-denbora izango da nagusi zuen istorioan? Eta, zein pertsonatan idatziko duzue istorioa? Begiratu orain arte ikusitako testuetan.

Ondoren, lortu duzuen informazioa erabilia, kontaketa idatziko duzue; horretarako, ordenagailua erabiliko duzue, eta ez ahaztu testu-zuzentzailea erabiltzea. Lagungarri izango zaizue, halaber, 4. jardueran ordena kronologikoari eta denbora-antolatzaileei buruz ikusitakoa.

Hori guztia egindakoa, idatzi duzuen testua beste talde batekoekin trukatu duzue, ikaskideen testua aztertu eta hobetu daitezkeen alderdiak markatuko dituzue; KONTAKETA EBALUATZEKO TXANTILOIA duzue zeregin horretan laguntzeko.

Amaitzeko, irakurri besteek zuen testuari egindako iradokizunak, eta zer edo zer hobetzerik badago, zuzendu.

KONTAKETA EBALUATZEKO TXANTILOIA	BAI /EZ	IRADOKIZUNAK
Pertsonaiak nor/nortzuk diren argi dago.		
Ekintzak noiz gertatu diren aipatzen du.		
Ekintzak non gertatu diren ageri da.		
Arazoa zein den argi dago.		
Zer gertatu zen ulertzen da.		
Zer edo zer ikasi dut istorioarekin.		
Denborazko testu-antolatzaile eta esamoldeak ondo erabilia daude.		
Gertaera kronologikoki ordenaturik dago, erraz ulertzeko.		
Gramatikalki zuzena da.		
Hirugarren pertsonan dago.		
Lehenaldian dago.		
Ortografia eta puntuazio egokiak ditu.		

...

6. JARDUERA. Istorioa errezipitatu

Orain, zuen irakasleak jarraian dagoen testua irakurriko dizue. Irakurtzen duen bitartean IRAKURKETA EBALUATZEKO TXANTILOIA betetzen joango zarete.

3. testua

Hiroshima eta Nagasaki

Gerrari amaiera emateko eta «bizitzak salbatzeko» bota omen zituzten bonba atomikoak Hiroshima eta Nagasakin. Aitzakia krudela, are krudelagoa Japonia lehenago ere errenditzeko prest zegoela jakinda. Zergatik erabaki zuten orduan AEBek Little Boy eta Fat Man jaurtitzea?

1945ko uztailan Truman-ek, AEBko presidentea, itsasontzi bat hartu eta Postdamera (Alemania) joan zen, gainerako potentziekin batera Bake Konferentzian parte hartzera. Oraindik Stalin eta bera aliatuak ziren ofizialki, baina konspirazioak hasiak ziren Gerra Hotzaren oinarriak ipintzen. Postdamera iritsi eta berehala Trumanek mezu bat jaso zuen: "The baby is born". Bonba atomikoaren frogak arrakastatsua izan zela, alegia.

Stalinek ere mezu bat jaso zuen Bake Konferentzian zeudela: "Ezin ditut heriotzak, hondamendia, gero eta handiagoak diren sakrifizioak gehiago jasan eta gerrari lehenbailehen amaiera ematea nahiko nuke". Mezua Hirohitorena zen, japoniarren enperadorearena. Ordurako Japoniari ez zitzaion ia armarik geratzen, gizonezko guztiak gerrara joanak ziren, eta hirietan zaharrak, emakumeak eta haurrak baino ez ziren geratzen. Haurrek lanean hasi behar izan zuten. Garraio sare desegokia zuen herrialdeak, erregairik ez zuten eta ekoizpen ahalmena galdua zuten. Goseak hartu zuen Japonia.

Stalinek Trumani mezuaren berri eman eta biak ados jarri ziren: bake negoziazioak ez zuten inongo presarik. Trumani negoziazioak aurrera ez egitea komeni zitzaion, gerra amaitzeko AEBak bakarrik nahikoak zirela frogatu nahi baitzuen. Stalinen nahia, aldiz, enperadoreari gerra deklaratu eta Sobietar Batasuna ekialdean zabaltzea zen.

Japoniak ez zuen Stalinen erantzunik jaso. «Biziak salbatzeko» bonba jaurtitzea erabakita zegoen.

1945eko abuztuaren 6an, goizeko 08:15ak ziren Japoniako hego-mendebaldean dagoen Hiroshima hirian. AEBetako armadako Enola Gay hegazkina eztanda puntuan, zubi baten gainean, kokatu eta Little Boy bonba atomikoa jaurti zuen. Segundo gutxitan 130.000 pertsona inguru hil ziren, gehienak emakumeak eta haurrak. Hiru egun beranduago, bigarren bonba bat leherrarazi zuten Nagasaki hiriaren gainean, Mitsubishien fabrika jopuntu zutela. Bigarren leherketan 70.000 pertsona hil ziren. Gerora, erreduren eta erradiazioaren ondorioz, beste 100.000tik gora hil ziren Hiroshiman eta Nagasakin.

"Hegazkin amerikar batek bonba bat jaurti berri dio etsaiari Hiroshiman. Bonba horrek 20.000 tona TNT baino indar handiagoa du. 2.000 bilioi dolar baino gehiago erabili ditugu historiako apustu zientifiko handiengan. Eta irabazi dugu", iragarri zuen Harry S. Truman AEBetako presidentea 1945eko abuztuaren 6an.

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/en/country/US/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=239897>

adaptatuta



IRAKURKETA EBALUATZEKO TXANTILOIA	
Hitzak ondo ahoskatzen ditu.	
Ez du hitz ulertezinik esaten, ez du ahapeka edo inork ez ulertzeko moduan, hitz egiten	
Erritmo egokia du: aldatu egiten du beharrezkoa denean.	
Bolumen egokia du: aldatu egiten du beharrezkoa denean.	
Puntuazio-markak jarraitzen ditu.	
Intonazio egokia du: aldatu egiten du behar duenean.	
...	

7. JARDUERA. Istoriorako baliabideak bilatzen eta antolatzen.

Orain, istorio digitalerako behar dituzuen irudiak, musika... bilatuko dituzue sarean. Hona hemen helbide interesgarri batzuk:

IRUDIAK	MUSIKA ETA SOINUA
http://www.time.com/time/photoessays/ http://www.flickr.com/photos/ http://flickr.com/creativecommons/ http://images.google.com/ http://www.sxc.hu/ http://www.altavista.com/image/ http://www.jakesonline.org/blankslides.htm (Diapositibak izenburuak idazteko)	http://www.freeplaymusic.com/ http://www.mp3.com/ http://www.apple.com/music/store/ http://www.freekaraoke.com/ http://www.aitech.ac.jp/~ckelly/SMF.html http://www.midi.net/ http://sounddogs.com/ http://www.geocities.com/Hollywood/Theater/6219/



**ZUON IRUDIAK, MUSIKA...
ERE ERABIL DITZAKEZUE**


Dagoeneko istorioa idatzi duzue eta irudiak, musika eta soinuak bilatu dituzue. Orain, ondo pentsatu beharko duzue nola uztartu testua, irudiak, musika eta soinuak. Horretarako, hurrengo orrialdean duzue istorioa egiteko mapa. Istorioa grabatu baino

lehen, horrelako orrialde batzuk erabiltzea istorioaren antolaketa ikusteko baliagarria izan dakizueke.

PROZEDURA

- ❖ Irakurri 5. jardueran idatzitako testua, eta joan antolatzen irudiak eta musika.
- ❖ Amaitutakoan, birpasatu egindakoa eta zuzenketarik egin behar bada egin.
- ❖ Egindakoa beste talde batekin trukatu, eta ebaluatu 8. jarduerako ISTORIO DIGITALA EBALUATZEKO TXANTILOIA erabilia.
- ❖ Zuen ikaskideen iradokizunak jaso, eta egin azken aldaketak istorioaren mapan.

ISTORIOA EGITEKO MAPA



8. JARDUERA. Istorio digitala editatu.

Istorioa ekoiztera goaz. Hori egiteko, Windows Movie Maker edo Photo Story 3 programak erabil ditzakezue, beste aukera bat da Power Point programa erabiltzea, baina orduan arazoak izan ditzakezue soinu grabatzeko.

Narrazioa edo kontaketa grabatu baino lehen, taldekide bakoitzak bere zatia praktikatu beharko du, tonu eta ahoskera egokia lortzeko (gogoratu 6. jardueran egindakoa).

Eta istorioa editatu ostean, egindakoa ebaluatzeko erabili honako txantiloia hau:

ISTORIO DIGITALA (AUTO)EBALUATZEKO TXANTILOIA		
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
Istorioa prestatzeko informazio-iturri fidagarriak erabili dituzte/ditugu.		
Gertaera historikoetan oinarritutako narrazio bat da.		
Istorioak nork, nor, zer, noiz, non, zergatik eta zelan galderak erantzuten ditu.		
Istorioaren izenburua erakargarria da.		
Ahoskera argia da. Ahotsa ondo kontrolatzen du (tonua, bolumena, erritmoa...).	1. taldekidea	
	2. taldekidea	
	3. taldekidea	
Aukeratutako musika eta soinuak aproposak dira.		
Aukeratutako irudiak aproposak dira.		
Hirugarren pertsona kontatuta dago.		
Lehenaldian kontatuta dago.		
Zer edo zer ikasi dut.		
...		



Orain, prest duzue DBHko 1. mailako ikaskideei erakusteko. Ea zer iruditzen zaien!

Badaude beste era batzuk istorioa helarazteko, zure eskolako web-orrian edo blogean publikatzea, adibidez.